

### Bagoaz Ategorrietara!

Gaur bertan jaso dugu "Lehen Erabilera Baimena". Erakina amaituta zegoen arren, asko borrokatu behar izan dugu Udalak zegokion eta beharrezkoa zen azken baimena igorri zezan. Tamalez, ikasleen lekualdatze orokorra egileko beranduegi izan da. Hala ere, zalantzarik gabe, gure ikasleek Ategorrietako 4. solairua bitarteko espazioak erabiltzeko aukera izango dute azken egun hauetan. Familien ohiko antolaketa ez da aldaketarik egongo, ikasleek orain arte bezala Josefina edo Hurrako eraikuntzan hasi eta bukatuko dutelako haien jarduna.



### Lekualdatzeak antolatzen

Behar genuen baimena lortuta, erakinen arteko materialaren lekualdatzea datorrigu orain. **Ekainaren 21 eta 22 arratsaldean** Josefinak hustu eta Ategorrieta hornitzeko gurasoen eta langileen laguntza ezinbestekoa izango da. Oraingo honetan ere auzolanean oinarrituko gara ilusioz beteriko proiektu honi ekiteko. Mesedez, **EKAINAK 15a BITARTE** ondorengo **GALDETEGIAN** dauden aukeretako batean izena eman, eta zuekin harremanetan jarriko gara lehenbailehen txandaren eta eginbeharren berri emateko. Mila esker!



### Soroako Atarian jolasak

Aspalditik irrikitan ginen arratsaldetan ikastolako Ataria irekita mantendu eta familia guztiak bertan bitzeko aukera izateko. Soroan horretarako aukera izan dugu, baita HH5eko familiek Euskaraz bizi proiektuaren baitan euskaraz elkarrekin jolatu eta ondo pasatzeko ere! Atariaz gozatzeko gaur izango dugu azken eguna: euskaraz berriz egunero eta momentuero gozatu dezakegu!



### Azken egunpasak

Ikastolan goiz eta arratsaldez egon garen azken astea aprobetxatze aldera, egun osoko irteerak egin ditugu LH 1, 2 eta 3ko ikasleek aste honetan. Inguruak eskaintzen dizkigun aukerak baliatuz, gure naturgune kuttunez gozatu dugu: Ulla eta Ametzagamaz.



### LH5ekook ere sukaldari

3. hiruhileko honetan sukaldaritz gaia landu dugu LH 5eko ikasleok. Euskarako arloan Euskal Herriko hainbat sukaldariren biografiak aztertzeaz gain, sukaldeko hiztegia landu, hainbat errezeta idatzi eta menu osasuntsu batekin osatu dugu gaia. Aste honetan gure gelak jateke bihurtu, eta talde bakoitzak osatutako menu osasuntsua bazkaldu dugu. Zein goxoa zegoen dena!!!



### Naturguneak garbitzera

Urte osoan zehar gogotik gozatu dugu gure inguruko naturgunez, eta eman digun guztia nolabait itzuli nahi izan diegu guk ere. Horretarako, DBH 1, 2 eta 4ko ikasleok Donostiako hondartzak eta mendiak garbitzen aritu gara. Hurrengo astean DBH3koon txanda izango da, eta Urumea ibaia garbitzera joango gara.



### DBH4koak Tabakaleran

DBH4-ko ikusentzuneko ikasle talde batek Tabakalerako **Zinemara** proiektuan parte hartzeko aukera izan dugu, eta bertako zinema-aretoan "Güeros" (ALONSO RUIZPALACIOS, MEXICO, 2014) filma ikusi genuen. Aukera polita izan da inguratzen gaituzten gaiekiko begirada kritikoa erakitzeko.



### Musika eta Dantza Eskola: ikasturte amaiera

Zurriola Musika eta Dantza eskolan ikasturteari amaiera emango diegu gaur, azken emanaldiekin. Ikasle bakoitzak izandako bilakaeraren berri izateko esteka bat partekatu genituen e-mailez ikasturtean zehar, eta bertan klik eginda aurkituko dituzue oraingo balorazioak ere. Gogoratu pasahitza haur bakoitzaren jaioturtea dela. Azkenik, **heren duzue HH 4-5 eta LH 1-2ko musikako ikasleekin prestatutako bideoa** bat. Uda on guztio!



### OHARRAK / AGENDA:

- HH-LH: Goizeko jarduna ekainaren 13tik aurrera. [Zirkularra](#).
- HH-LH1-2: Argiboreen egutegia. [Zirkularra](#).
- HH-LH-DBH-BATX: 22/23 ikasturteko [zerbitzuak](#). [Zirkularra](#) eta [izen-ematea](#). Azken eguna [ekainak 11](#).
- LH2-3: Sorospen saioak DYAKoen eskutik. [Bideoa](#). Ekainak 13 (2A-2B), ekainak 14 (2C-3A) eta ekainak 15 (3B-3C)
- LH6: Uliara irteera. Goizpasa. Ekainak 16.
- DBH: Ohiko deialdiko azterketak. Ekainak 16, 17 eta 20.
- DBH1-2: Paddie saioak Etxadin. Ekainak 13 edo 14.
- DBH3: Piraguan ibaia garbitzera. Ekainak 13-14-15.
- DBH4: Lehen sorospeneko saioak. Ekainak 16.
- BATX: Aparteko deialdiko azterketak. Ekainak 9-15.
- BATX: Aparteko deialdiko emaitzak [Aletxian](#). Ekainak 17. 13:30.
- BATX2: USEko emaitzak. Ekainak 16. 13:00.
- Liburu eskaera 22/23: LH, DBH eta BATX. Ikasmaita guztiak.
- Zurriola Antzerki Eskola: Ekaineko [emanaldiak](#).
- Udaleko Euskara zerbitzuak: 16-18 urte bitarteko gazteentzako [euskara ikastaroak](#) uztailaren.

**LIBURU SALMENTA**  
2022/23

**ZERBITZUAK**  
2022/23



@zurriolartetarte

